

Perpausaren osagaiak:

subjektua eta predikatua

GOGORATU:

Perpausak bi zati ditu:

- **Subjektua**: ekintza nork egin duen adierazten du.
- **Predikatua**: zer ekintza egiten den azaltzen digu.

1. Jarri gorrian subjektua eta berdean predikatua.

- Amona Maitek gezur guztiak sinetsi ditu.

Subjektua	Predikatua
-----------	------------

- Fabrikak inguruko errekak kutsatu ditu.

Subjektua	Predikatua
-----------	------------

- Orratz zorrotzak bizikletaren gupila zulatu du.

Subjektua	Predikatua
-----------	------------

- Gure lagunak txakurrak hezurra karraskatu du.

Subjektua	Predikatua
-----------	------------

- Bermeoko arrantzaleek ez dute arrainik harrapatu.

Subjektua	Predikatua
-----------	------------

2. Perpausotako subjektuak nahasi egin dira. Jarri bakoitza bere predikatuarekin eta berriatzi perpausak.

- Idazleak tronpa luzea du.
- **Idazleak** _____
- Donostiako trenaren basoko zuhaitzetan bizi da.
- **Donostiako trenak** _____
- Irakasleak matxura larria izan du.
- **Irakasleak** _____
- Autoak ez dakizki galderen erantzunak.
- **Autoak** _____
- Arrano beltza arratsaldeko bostetan irten da geltokitik.
- **Arrano beltza** _____
- Elefanteak liburua idatzi du.
- **Elefanteak** _____

3. Idatzi hiru hitzeko edo gehiagoko **subjektuak** perpaus hauetarako:

- _____ kirolari apartak dira.
- _____ zimeldu egingo dira eguzkitan.
- _____ txokolatezko eta kokozko gozokiak egiten dituzte.
- _____ gauez ibiltzen dira.
- _____ etxeko teilatuan eseri dira.

4. Oraingo honetan, gehitu behar dituzu predikatuak hurrengo subjektuei.

- * Ikastetxeko futbol taldeko jokalariek
- * Zirkoko elefanteak
- * Gasteizeko garbitzaileek
- * Bermeoko arrantzaleek
- * Amaiaren neba txikia

5. Egin esaldiak subjektua bere predikatuarekin lotuz.

Gu
Umeak
Uxuek
Lapurrek
Joneren aitonak
Arkatza
Irakaslea
Guk
Txoriak
Miren eta Ane

hirurogeita bost urte ditu
etxeko gela guztiak garbitu ditugu.
jolastera joan dira
haserretu da
Nekanerekin topatu dira.
hegan egiten joan dira.
hamar bat atera du
zinemara joan gara.
Ainhoari galdu zaio.
aitaren autoa eraman dute.

